

Ordizian, **2016ko azaroaren 21a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: José Miguel Santamaría Ezeiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

| | |
|-------------------------------|--------------------|
| Igor Eguren Izagirre | Ordiziako EH-Bildu |
| Mila Sukia Galparsoro | Ordizia Orain |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna | PSE-EE (PSOE) |

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras EAJ/PNV. Ezin etorria adierazi du

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK

Ezin etorria adierazi du Carlos Gonzalez Astizek, Irabaziko ordezkaria.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.- 2016ko azaroaren 7an ohiko deialdian egindako bileraren akta onartzea.
 - 2.- Berdintasun Batzordea
 - 3.- 6.000 eurotik gorako fakturak.
 - 4.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - .- 6.000 eurotik beherako fakturak. Oniritzia eman zaie.
 - .- Egoitzako Zuzendaritza Batzordearen bilerari buruzko informazioa.
 - .- kontzertuak HAKA, HERRIKO eta KIRKIL establezimenduetan
 - .- Ostalaritza establezimendu bati zigor espedientea irekita adingabekoei alkohola eman eta saltzeagatik.
 - .- Aurreko astean egin zen Kirol Aholku Batzordearen bileraren berri ematea
 - 5.- Galde-erreguak
- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikorako EAJ eta IRABAZIk idatziz egin ditzatela ekarpenak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:00



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko azaroaren 7ako bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2016ko azaroaren 7ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Sukia andrea

Esan du aktaren 3. Puntuan "hainbat txosten eta eskaera" puntuan zuzenketa bat egin behar litzatekeela. Sortutako zarata eta eragozpenei lotuta Etxezarreta kaleko bizilagunen kexa-idatzia dioen tokian esan behar du Etxezarreta eta Santa Maria-Andre Maria kaleko bizilagunena, eragozpenak bi kaleetan sortzen baitira.

Aho batez onartu da.



2.- Berdintasun Batzordea

Alkate jn

Jakinarazi du bilera deialdi bat egin zela Berdintasun Batzordearekin baina kontuan izanda aurrerapen txikiarekin bidali zaiela deialdia eta ezin izan zutela joan, eskatu dute bilera hau hurrengo Gobernu Batzordean egiteko.



3.- 6.000 € tatik gorako fakturak.

Aldeko irizpena jaso dute.



4.- Zenbait txosten eta eskaera.

- 6.000 € tatik beherako fakturak.

Oniritzia jaso dute

.....

Alkate jaunak Egoitzako Zuzendaritza Batzordearen bilerari buruzko informazioa eman du, bertan lanpostuen balorazioari hasiera ematea adostu zen.

Hiru aurrekontu eskatzea eta jarraian balorazioarekin hastea erabaki da.

.....

.- Alkate jaunak jakinarazi du udalerrian zehar jarritako kartel batzuei esker jakin duela kontzertu batzuk egingo direla HAKA, HERRIKO eta KIRKIL establezimenduetan.

Idatzi bat prestatu da jakinarazteko zein agiri aurkeztu behar dituzten eta araudiaren arabera zein baldintza bete behar dituzten, kontzertuei baimena emateko.

Idatziaren edukia zehatz azaldu du.

.....

.- Alkate jaunak jakinarazi du ostalaritza establezimendu bati zigor espedientea ireki zaiola adingabekoei alkohola eman eta saltzeagatik.

.....

.- Alkate jaunak aurreko astean egin zen Kirol Aholku Batzordearen bileraren berri eman du.



4.- Norberak lekarkeenak.

Dubreuil jaunak eskatu du Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikorako EAJ eta IRABAZIk idatziz egin ditzatela ekarpenak.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.